Usurbilgo Udala

ID.05/2021-0124

USURBILGO SANTUENEA AUZOAN KOKATURIKO "GURE ELKARTEA" JUBILATU ELKARTEKOTABERNAREN ERABILPEN ETA KUDEAKETA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1.-HELBURUA

Orri hauen helburua Usurbilgo Santuenea auzoko Gure elkartea jubilatu elkartearen egoitzan kokatuta dagoen tabernaren udal zerbitzuaren kudeaketa eta ustiapena esleitzeko lehiaketa arautzea da.

2.-ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

Usurbilgo Udalak, baldintza plegu hauetan Usurbilgo Santuenea auzoko Gure elkartea jubilatuen egoitzako tabernaren eta bertan dauden elementu eta instalazioen kudeaketa kontratuaren esleipena eta exekuzioa arautzen ditu.

Esleipendunak zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren produktuen eta gaien salmentaz arduratu beharko du. Horiek horrela, horien kalitatearen gaineko erantzukizuna izango du eta taberna baten berezko zerbitzuak eskaini ahal izango ditu, esaterako, edariak zerbitzatzea (alkoholdunak eta alkoholik gabeak), pintxoak eta/edo anoak (razioak) eta jangela zerbitzua ematea (menu gutxi batzuk). Eguneko menua kudeatzaileak eskeintzea erabakiz gero, jubilatuei prezio berezia egin beharko die (Eranskina 1.)

Erabat debekatuta dago tabakoa eta legez kanpoko produktuak saltzea, bai zuzenean, bai zeharka.

Esleipendunak, zerbitzua betetzeko garatzen dituen lanen eta eskainitako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegokien edota erabaki okerren ondorioz gertatutakoaren erantzule ere.

Udalak ez du inolako erantzukizun penalik, zibilik edo beste edozein motatako erantzukizunik izango, esleipendunak hornitzaileei ordainketak egiten ez badizkio, hornitutako kontsumo produktuen ondorioz toxikazioak gertatzen badira eta/edo beste edozein arrazoi dela medio.

Kontratistak obligazioa izango du bere telefonoa Udalaren ezagutzapean jartzeko.

Horretaz gain, kontratu honen xede izango da taberna-jantokiaren ustiapena eta mantenua, sukalde, almazen, komunen garbiketa, barruko gelaren garbiketa, pasilloen eta jubilatu elkarteko bulegoko gelaren garbiketa, eta tabernaren sarrerako garbiketa (ataria). Esleipendunaren betebeharra izango da jubilatu egoitzako gela ezberdinen atezaintza lanak aurrera eramatea beti ere udala eta jubilatuekin adostuta.

3.-ZERBITZUAREN ERABILTZAILEAK ETA JENDEARI ARRETA

Zerbitzua herritar guztientzat zabalik egongo da, Gure elkartea Jubilatuen elkarteko bazkide diren ala ez kontuan izan gabe. Halere, kontuan izan behar da zerbitzuko erabiltzaile gehienak erretiratu eta pentsiodunak direla eta esleipendunak errespetuzko tratuan oinarritutako hartu-emanak izango dituela beraiekin eta jarrera lagunkorra izango duela elkarteko kideak diren jubilatuekin (garrantzi berezia du honek). Gainera, Udalak onarturiko prezioak aplikatu beharko dizkie (I. Eranskina).

Esleipendunak kontrataturiko lanak arreta osoarekin burutu behar ditu, erabiltzaileei zerbitzua bermatuz eta nazionalitate, arraza, sexu identitatea eta/edo beste edozein ezaugarrigatik diskriminatu gabe eta hauen eskubideak errespetatuaz: adierazpen askatasuna, tratu zuzena etab.

4.-PUBLIZITATEA ETA DIBULGAZIOA

Zerbitzuaren titularitatea Udalarena da, beraz, esleipendunak derrigorrez hauek bete behar ditu:
• Zerbitzuaren irudiarekin ezingo da publizitaterik egin Udalaren baimenik gabe erakunde esleipendunaren interes partikularrerako.
• Udalaren baimenarekin egiten den publizitatean, beti adierazi beharko da zerbitzuaren Udal izaera. - Edozein kasutan udal arauak errespetatuz egingo da publizitatea (ez sexista, ez iraingarria...)

5.-BESTELAKO ARAUAK

• Adingabekoei alkoholdun edariak ateratzea debekatua dago
• Erabat debekatuta dago tabakoa eta legez kanpoko produktuak saltzea, bai zuzenean, bai zeharka
• Txanpon makinak eta tabako makinak ez dira onartuko.
• Freskagarri eta jakien makinak jarri nahi izanez gero, zerbitzuak berak kudeatuko ditu, Udalak horretarako baimena eman ondoren.
• Ez ohiko ekitaldiak antolatu nahi izanez gero (jaialdiak, ihauteriak...), aurretiaz Udalari jakinarazi beharko zaio.

6.-INSTALAZIO ETA MAKINERIAREN MANTENIMENDUA

Esleipendunak egoera onean (mantenua eginez, higiene eta ohiko garbitasuna eginez) zaindu eta mantendu beharko ditu zerbitzuak dituen ondasunak eta instalazioak. Horretarako instalazioen eta ekipamenduen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezko diren gastuak bere kargura izango dira, legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik (zehaztapenak plegu administratiboetan jasota datoz). Usurbilgo Udalak taberna erabat horniturik utziko du. Kontratuari atxikiko zaio, eranskin moduan, Udalak kontratistaren esku uzten dituen gauzen inbentarioa (II. Eranskina). Esleipendunaren kargura joango da ekipamendu guztia osatzen duten instalakuntza eta makineria guztiaren mantenimendua (etxetresna elektrikoen konponketei eta ordezkatzeei Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan xedatutakoa aplikatuko zaie).

Kontratuak irauten duen epean, Udalak edozein momentutan egin ahal izango du ikuskapen bisita, baita osasun sailak ere.

Kontratu epea bukatzear dagoenean berriro ikuskapen bisita egingo da, Udalari ondasun guztiak hartu zituen moduan eta erabiltzeko gai itzultzen dituela egiaztatuko delarik. Ondasunik faltako balitz edo modu desegokian edo txarragoan baleude, Udalari berauek birjartzeko diru kopurua eman beharko dio, erabilera arruntaren ondoriozko desgasteagatik izandako kalteak salbu.
Usurbilgo Udalaren berariazko baimen espresurik gabe ez da inolako obrarik egiterik izango ezta ekipamenduan aldaketarik ere.

7.- GARBIKETA

Esleipendunak taberna, komunak, eraikinaren sarrera, barruko gela, almazenak, pasilloak, ataria... garbitu behar ditu. Erabiltzen duen tresneria, materiala, altzariak etab. beti higiene eta garbitasun baldintza onetan eduki beharko ditu. Zentzu horretan kontratista-esleipendunari dagokio garbitasun produktuak bere kargura erostea. Esleipendunak garbiketa plana proposamenean aurkeztu beharko du, baita horren jarraipenerako mekanismoak ere.

Horretaz gain, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduak xedaturikoa bete beharko du (ordutegi, zarata, isurketa eta osasun baldintzei dagokienean). Tabernan edo jangelaren aktibitatearen ondorioz sortu daitezkeen hondakinak Udalak horretarako prestaturiko sistema, leku eta ordutegian atera beharko ditu esleipendunak derrigorrez ondo sailkatuta. Hau egiten ezean, Usurbilgo

udalerrian hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako zehapen prozedurak abiatuko dira.

8.-INGURUMENAREN KUDEAKETA

Esleipendunak ingurumenarekin errespetuzko zerbitzu eskaintza egiteko, kontuan hartu beharko ditu naturaren eta ingurumenaren balioak lehiaketako xede diren instalazioetan, batez ere hondakinen atez ateko bilketa eta energi kontsumoen arrazionalizazioari dagokionez

9.-ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Ordutegia: Zerbitzua esleipendunak ordutegi honetan eduki behar du irekia:

-Astegunetan: taberna arratsaldeko 16:00etatik 21:00etara irekita egon beharko da.
-Asteburu eta jai egunetan: goizeko 11:00etatik gaueko 21:00etara taberna irekita egon beharko da.

Ordutegi honetatik aparte, ordutegi zabalago batean ireki nahi izanez gero, proposamena, auzoaren ezaugarriak eta jubilatu elkartearen dinamika zein den kontuan hartuta egin beharko litzateke. Ordutegia handitzeko erabakia esleipendunak hartuko balu, jubilatu elkarteari eta Udalari jakinarazi beharko die, eta haien oniritzia jaso ostean, herritarrei jakinaraziko zaie.

Finkatzen diren ordutegiei dagokionez, jendea tabernan baldin badago beranduago itxi ahal izango da betiere, legezko mugen barruan.

Egutegia:

- Asteko atsedena: astean lanegun bat taberna ixteko aukera izango du esleipendunak; hori Udala eta Gure Elkartea jubilatu elkartearekin adostuko da.
- Oporraldia: esleipendunak zerbitzua itxi ahal izango du, gehienez 22 lanegunez. Ezingo da itxi auzoko jaiak direnean. Kontratua indarrean dagoen bitartean, itxialdi egutegia jubilatuen elkarteari eta udalari jakinarazi beharko zaio, azken honek baimendu dezan.
  *Opor egunetan kudeatzaileak jubilatu elkarteko ordezkariei haien gelatara sartzeko aukera ahalbidetu beharko die.

I-ERANSKINA

Jubilatu tabernen kudeaketa esleitzeko Administrazio-baldintza zehatzetan -Esleipendunaren betebeharrak- atalean honela dio: “Tabernako salmenta prezioak (prezio orokorrak, jubilatuenak ez direnak) esleipendunak erabakiko ditu, baina herriko establezimenduetan ezarritakoen bataz bestera egokitu beharko dituztelarik, azken horiek ezingo direlarik gainditu. Jubilatuei dagozkien prezioen inguruan, Udalak hiru jubilatuen etxeekin adostuko dituenak errespetatu beharko dira”. Horiek horrela, jubilatuentzat indarrean dauden prezioak hauek dira:

Kafeak:
Kafea 1,00 €
Kafesnea 1,10 €
Kafesnea basoan 1,20 €
Kafea ttanttakin 1,30 €
Infusio naturala 1,40 €

Usurbilgo Udala

ID.05/2021-0124

Ardoak:
Ardo arrunta 0,50 €
Urtekoa 1,00 €
Kriantza 1,60 €
Txakoliña 1,60 €

Garagardoak:
Zuritoa 0,90 €
Kaña 1,80 €
Lejia 1,80 €
Lejia osoa 2,30 €
Garagardo botila 1,60 €
Kalimotxo erdia 1,80 €
Kalimotxo osoa 2,30 €

Freskagarriak:
Kas, koka kola, tonika... 1,50 €
Zukuak 1,50 €

Laranja zuku naturala 2,50 €

Aperitiboak:
Vermouth 1,80 €
Marianito 1,60 €
Bitter 1,80 €
Ur txikia 0,80 €
Ur handia 1,80 €

Ardo botilak:
Arrunta 3,50 €
Urtekoa 7,00 €
Kriantza
Txakolina 11,00 €
Cava 11,00 €
Kopak:
Soberano 3,00 €
Magno 3,00 €
Cardhu 6,00 €
Baileys 3,30 €
Whisky 3,50 €
Ginebra 3,00 €

Konbinatuak:
Normalak 4,80 €

Bereziak 5,80 €

Eguneko menua
Eguneko menuaren prezioa jubilatuentzat ez dago hiru tabernen artean bateratua; hori horrela izanik, tabernako kudeatzaileak Gure Elkarteako tabernan eguneko menua (1.platera, 2.platera eta postrea) eskeintzea erabakiz gero, menuak duen prezioari gutxienez %15 eko deskontua egin beharko die jubilatuei ezinbestean.

Usurbilgo Udala

ID.05/2021-0124

II. ERANSKINA INBENTARIOA

TABERNAN

- Egurrezko 4 silla
- 2 taburete plastikozko beltzak
- 7 mahai lauki melamina eta burnizkoak
- Telebista TC2
- Garai bateko liburutegiko egurrezko bi armairu baldakin
- Betiko enpresak jarritako kafetera
- Betiko enpresak jarritako 2 errota
- Inoxidablezko altzaria kafetera azpian dagoena
- Gela egiteko makina NIF
- Kamara FRI
- SAMIC ontzi garbigailua (egoera onean ez omen dago)
- CASIO kaja-registradora

SUKALDEAN

- EDESA bitrozeramika 4 sutakoa
- Altzairu herdoilgaitzezko gaina
- 2 metrotako apal herdoilgaitza
- LUIS CAPDEVILA Suburua (kanpana)
- DISTFORM 2 ateko armairu herdoilgaitza
- SAMIC frijigailua
- SAMIC mikrondasa
- SAMIC ontzi garbigailua
- ANNA labea
- LIEBHER hozkailua
- INFRICO izozkailua
- Ontziteria (platerak)

ALMAZENEAN

- 5 apaletako metro bateko zabalerako 4 apalategi

BARRUKO EGONGELAN

- Egurrezko 4 mahai laukidun
- 16 silla laranja, plastikozko beste 20
- Larruzko sofa zuria
- 2 esekitoki (perchero)
- LG telebista
- Kortinak
- Egurrezko apalategi handia alderik alde
- Aterkiontzia

GARBITASUN GELAN

- Takilla 2 atekoa